

ACUERDO POR EL QUE SE RECONOCE A LA FUNDACIÓN UNIVERSIDAD SOCIEDAD COMO ENTE INSTRUMENTAL DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA.

Por Acuerdo de la Junta de Gobierno de la Universidad Pública de Navarra, de 20 de diciembre de 1996, se creó la Fundación Universidad-Sociedad y se aprobaron sus Estatutos, otorgándose la oportuna escritura pública de constitución el 10 de junio de 1997, ante el Notario del Ilustre Colegio y Distrito de Pamplona, don Felipe Pou Ampuero.

Por Acuerdos de la Junta de Patronato de la Fundación Universidad Sociedad de 21 de enero de 1998, 25 de mayo de 2001 y 27 de diciembre de 2001, se modificaron sus Estatutos, otorgándose la oportuna escritura pública de modificación y refundición de los Estatutos el 17 de junio de 2002, ante el Notario del Ilustre Colegio y Distrito de Pamplona, don Felipe Pou Ampuero.

La Fundación Universidad-Sociedad de la Universidad Pública de Navarra se constituyó como fundación de interés social para el desarrollo de la Sociedad y Economía de Navarra. De acuerdo con sus Estatutos tiene como objeto el fomento y desarrollo del diálogo y la comunicación entre la Universidad Pública de Navarra y los distintos agentes económicos y sociales, la promoción, protección y fomento de toda clase de estudios e investigaciones de interés para dichas Instituciones; fomentar la relación de la Universidad con la empresa a través de prácticas para la formación de los titulados de la Universidad Pública de Navarra con el objetivo de facilitar la integración de los mismos en el mundo empresarial; buscar soluciones para la satisfacción de necesidades comunes y actuar como Centro de Información y Coordinación de cuantas empresas deseen mantener relaciones especiales con la Universidad para su mejor desarrollo, la integración social y el perfeccionamiento de la Economía Navarra. Entre sus fines, además de los correspondientes al objeto señalado, figura la atención a otras actividades que cooperen a los fines fundacionales.

El 25 de septiembre de 2000, la Universidad Pública de Navarra y la Fundación Universidad Sociedad formalizaron un Acuerdo Marco de Colaboración, ratificado por la Comisión Permanente de la Junta de Gobierno el 2 de octubre de 2000.

En la cláusula tercera de este Acuerdo Marco se estableció que la Universidad Pública de Navarra podrá encargar a la Fundación la gestión de cualesquiera otras actividades, que siendo propias de aquella Institución, estén en conexión con los

ERABAKIA, UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ERAKUNDE INSTRUMENTAL BAT DELA AITORTZEN DUENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak 1996ko abenduaren 20an hartutako erabakiaren bidez, Unibertsitate-Gizarte Fundazioa sortu eta haren Estatutuak onetsi ziren, bai eta eraketako eskritura publikoa eman ere 1997ko ekainaren 10ean, Felipe Pou Ampuero Iruñeko Elkargoko eta Barrutiko notarioaren aurrean.

Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren Patronatu Batzordeak 1998ko urtarrilaren 21ean, 2001eko maiatzaren 25ean eta 2001eko abenduaren 27an hartutako erabakien bidez, haren Estatutuak aldatu ziren, bai eta Estatutuak aldatzeko eta bategiteko eskritura publikoa eman ere, 2002ko ekainaren 17an, Felipe Pou Ampuero Iruñeko Elkargoko eta Barrutiko notarioaren aurrean.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate-Gizarte Fundazioa Nafarroako Gizartea eta Ekonomia garatzeko interes sozialeko fundazio gisa eratu zen. Bere Estatutuen arabera xede hau du: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta eragile ekonomikoen eta sozialen arteko elkarrikeria eta komunikazioa sustatzea eta garatzea, erakunde horientzat interesekoak diren zeinahi azterketa eta ikerketa bultzatzea, babestea eta sustatzea; Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana sustatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituludunen prestakuntzarako praktiken bidez tituludunak enpresa munduan integratzeko; konponbideak aurkitzea behar amankomunak betetzeko eta, garapen hobearekin, integrazio soziala eta Nafar Ekonomiaren hobekuntza lortze aldera, Unibertsitatearekin harreman bereziak izan nahi dituzten enpresa guztien Informazio eta Koordinazio Zentro gisa jardutea. Sorrerako helburuak lortzeko lagungarri diren beste jarduerak batzuei arreta ematea dago haren helburuen artean, aipatu xedeari dagozkionez gainera.

2000ko irailaren 25ean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Unibertsitate-Gizarte Fundazioak Lankidetzako Esparru Hitzarmen bat izenpetu zuten, Gobernu Batzordearen Batzorde Iraunkorrak 2000ko urriaren 2an berretsia.

Esparru Hitzarmen horren hirugarren klausulak ezarri zuen zilegi izango dela Nafarroako Unibertsitate Publikoak Fundazioari beste edozein jarduerak kudea dezala agintzea. Jarduerak horiek Nafarroako Unibertsitate Publikoarenak izan behar

pe

objetivos propuestos por la Fundación, dentro de los ámbitos de actuación de ésta, y ello con sujeción estricta a las disposiciones y normativas vigentes que en cada caso resulten de aplicación. Asimismo, esta cláusula tercera dispone que el encargo de actividades de la Universidad a la Fundación Universidad-Sociedad se podrá efectuar bien mediante resolución del Rector, de la que se informará a la Comisión Permanente de la Consejo de Gobierno, bien mediante la formalización del correspondiente contrato-programa, que será aprobado por el Consejo Social a propuesta del referido Consejo. El encargo de actividades se efectuará con carácter temporal, por periodos determinados susceptibles en su caso de prórroga, y que, en la medida de lo posible, se harán coincidir con el ejercicio presupuestario. Los contratos-programas que en su caso se formalicen tendrán vigencia temporal.

De conformidad con lo expuesto, se han realizado los correspondientes encargos de actividades a la Fundación Universidad Sociedad tanto a través de la formalización en el 2002 de un contrato programa, como, desde el año 2007, mediante resoluciones del Rector de encomiendas anuales de actividades; encomiendas en las que se determina la cuantía económica máxima que aporta la Universidad Pública de Navarra.

El artículo 11.1 de la Ley 40 /2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece que *la realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.*

Por otra parte, la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, en su artículo 7.1, letra a), excluye del ámbito de aplicación *los encargos realizados a un ente instrumental de conformidad a lo dispuesto en el artículo 8 de esta ley foral, estableciendo este artículo 8 en su apartado 1 que esta ley foral no será de aplicación a los encargos de prestaciones propias de los contratos de obras, suministros, servicios y concesiones de obras y servicios que los poderes adjudicadores sometidos a la misma decidan realizar a sus entes instrumentales, y en su apartado 2 señala que se entiende por ente instrumental entidades dotadas de personalidad jurídica propia, que carezcan de autonomía decisoria respecto de la entidad que realiza el encargo, al ejercer ésta un control análogo al que ejerce sobre sus propios servicios o unidades, que no exista participación directa de capital privado, y que más del 80% de sus actividades se lleven a cabo en el ejercicio de los cometidos que le han sido confiados por el poder adjudicador que la controla.*

dute, eta Fundazioak proposatutako helburuen artean egon behar dute, Fundazioaren jardun-eremuen barruan, bai eta kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapen eta arau indardunak zorrotz bete ere.

Halaber, hirugarren klausulak ezartzen du Unibertsitateak Unibertsitate-Gizarte Fundazioari jarduerak hauen bidez aginduko direla: errektorearen ebazpenaren bidez –ebazpena Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrari jakinaraziko zaio–; edo dagokion kontratu-programa eginez –Gizarte Kontseiluak onetsiko du lehen aipatutako Kontseiluak proposatuta–. Jarduerak aldi baterako aginduko dira, eta aldi horiek luzatzeko aukera egongo da, eta, ahal den neurrian, aurrekontu ekitaldiarekin bat etorraziko dira. Egiten diren kontratu-programak aldi baterakoak izango dira.

Azaldutakoarekin bat etorritik, dagozkion jardueren enkarguak egin zaizkio Unibertsitate-Gizarte Fundazioari bai 2002an kontratu-programa bat eginda, bai, 2007tik aurrera, jardueren urteko aginduak egiteko errektoreak emandako ebazpenen bidez; Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako gehieneko ekarpenaren zenbatekoa zehazten da agindu horietan.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.1 artikulua ezartzen duenez, *administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko lan materialak, teknikoak edo zerbitzu-lanak Administrazio bereko edo beste bateko organoei agintzeko aukera egongo da, eraginkortasunagatik, edo lanak egiteko baliabide tekniko egokiak ez izateagatik.*

Bestalde, Kontratu Publikoei buruzko 2018ko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 7.1 artikuluan a) letran aplikazio eremutik kanpo uzten ditu *foru lege honen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik erakunde instrumental bati egindako enkarguak*, eta 8. artikuluan 1. apartatuak ezartzen du *foru lege hau ez zaiela aplikatuko legean ezarritakoa bete behar duten botere adjudikazio-emaeleek beren erakunde instrumentalei agintzen dizkieten obra, hornidura, zerbitzu kontratuak eta obren eta zerbitzuen emakida kontratuak diren prestazioen enkarguei*, eta 2. apartatuan ezartzen du *erakunde instrumentalak pertsonalitate juridiko berezia duten entitateak direla, enkargua egiten duen erakundearekiko erabakitzeke autonomiarik ez dutenak, enkargua egiten duen erakundeak bere zerbitzuen eta unitateen gainean duen kontrolaren antzekoa baitu. Horretaz gainera, erakunde instrumentalak ez du izan behar kapital pribatuaren parte-hartze zuzenik, eta botere adjudikazio-emaeleak eman dizkion egitekoak betetzearin egin behar ditu bere jardueren % 80 baino gehiago.*

ne

Asimismo, este artículo 8, en su apartado 2, letra d) exige respecto a los entes instrumentales *la declaración expresa de ente instrumental, que se anunciará en el Portal de Contratación con expresión del ámbito al que se pueden circunscribir los encargos.*

Por todo lo que antecede, a propuesta de la Vicerrectora de Estudiantes, Empleo y Emprendimiento de la Universidad Pública de Navarra, el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 26 de noviembre de 2018, adopta el siguiente,

ACUERDO

Primero.- Reconocer a la Fundación Universidad Sociedad como ente instrumental de la Universidad Pública de Navarra en el ámbito de los fines y objetivos establecidos en sus Estatutos.

Segundo.- Ordenar la publicación del presente acuerdo en el Portal de Contratación de Navarra y en la página web de la Universidad Pública de Navarra.

Tercero.- Trasladar el presente acuerdo a la Directora Gerente de la Fundación Universidad Sociedad y al Presidente de la Junta Rectora de la Fundación Universidad Sociedad.

Cuarto.- A tenor de lo establecido en el artículo 6.4 la Ley Orgánica 6/2001 de Universidades y en el artículo 144.1 de los Estatutos de la Universidad, el presente acuerdo agota la vía administrativa, contra el mismo podrán los interesados interponer potestativamente recurso de reposición, ante el Consejo de Gobierno, el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de dicho orden jurisdiccional del Tribunal Superior de Justicia Navarra; contados ambos recursos desde el siguiente al de su publicación en la página web de la Universidad.

Halaber, 8. artikulua, 2. apartatuko d) letran eskakizun hauek ezartzen ditu erakunde instrumentalei dagokienez: *erakunde instrumentalaren berariazko aitortpena egitea, aitortpena Kontratazioen Atarian iragartzea, eta lanen enkarguak zein esparrutakoak izango diren adieraztea.*

Aurreko guztiarengatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen gaietarako, Enplegurako eta Ekintzailetzarako errektoreordeak proposatuta, hau da Gobernu Kontseiluak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, hartu duen

ERABAKIA

Lehen.- Unibertsitate-Gizarte Fundazioari Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erakunde instrumentalaren izaera aitortzea NUPen Estatutuetan ezarritako xedeen eta helburuen esparruan.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Kontratazioen Atarian eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko web-orrialdean argitaratu dadila agintzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren zuzendari kudeatzaileari eta Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren Zuzendaritza Batzordeko buruari helaraztea.

Laugarrena.- Unibertsitatei buruzko 2001 abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren artikulua eta Unibertsitatearen Estatutuen 14 artikulua ezarritakoaren arabera, interesdunek zidute erabaki honen aurka, aukeran, berraztertze errekurtsua jartzea Gobernu Kontseiluaren aurre hilaeteko epean, edo administrazioarekiko aurrekurtsua Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegietan, zuzenean errekurtsotarako epean erabaki hau Unibertsitatea webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrerantzat hartuko dira.

EL PRESIDENTE / KONTSEILUBURUA



Alfonso Carlosena
Rector/Errektorea



upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

